

**“06:18”**

Maialen Akizu Bidegain

*Urretxu*

Kalean aurrera zihoan pauso arinez. Etxetik kiroldegira joateko bidea beti egin ohi zuen erritmo bizkorrean, eta bere buruari erronka jartzen zion, ea lehengo astean baino azkarrago egin zezakeen. Maite zituen erronkak, eta saihestu ezin zitezkeen denbora galtzeak, kiroldegirako bidea kasu, probesten zituen gainera horrela. Baina ondo ikasia zuen erronka guztiek izaten dituztela oztopoak helmugara iristeko. Hargatik, Mirenek, aspaldi utzi zion ingurukoak agurtzeari, irribarre faltsu bat egitea denbora galtzeko beste modu bat gehiago zen, eta dagoeneko bere bidean inor ez gurutzatzeko ahalmena du, bera bakarrik doa. Mirenek ez du oroitzen zeruan hegaka zebiltzan txoriei noiz begiratu zien azkenekoz. Zertan begiratu zure gainetik dagoenari, berak egin dezakeena zuk inoiz egin ezin dezaitezula leporatzen dizunari? Lurrean ere badaude horrelako txoriak, eta Mirenek aspalditik gorrotatzen ditu animaliak, (horregatik akaso).

Baina urratsen kadentzia moteltzen hasi da bat-batean, konpasaren erritmoa Ismael Silvaren samba batetik Johan Straussen vals batera pasako bailitzan. Altzari denda bat. Geratu gabe aurrera segi du, baina altzari dendari so, oinak arrastaka eramango balitu bezala, oztopoari aurre egitea asko kostatuko balitzaio bezala. Ez dabil sofa berri baten bila, nola egon sofan etzanda begi bistan dituen izterrak edukita. Hain dira motzak, eta formarik gabeak, zabalak...

–Ama, gaur ere porru-patatak daude bazkaltzeko? –kexu zen zazpi urteko neskatila. Korrika pasa zuen egun osoa eskolan, harrapaketan gelditu ere egin gabe. Izerdituta iritsi zen etxera, eta platerean zuen belar berde hark ez zuen indarrrik ematen klasekide guztiak harrapatzen galdu zuen indarra konpentsatzeko.

–Bai, goxo-goxoak daude gainera. Oraintxe egin berriak dira –amak platerera zerbitzatu zion bazkaria. Burruntzali bat eta erdi, ez gehiago ezta gutxiago ere. –Gainera badakizu porruek “C” bitamina asko izateaz gain potasioa eta magnesioa ere badutela.

–Jooo, baina aste honetan egunero jan ditugu barazkiak? Noiz jarri behar dituzu makarroiak? Itsasok gaur bazkaltzeko makarroiak zituela esan dit, txorixo eta bexamelarekin. Nik ere nahi ditut... –Mirenek koilararekin porruak hartu eta platerera botatzen ditu behin eta berriz, amak

esaten dizkion onura haiek begiekin ikusi nahi balitu bezala.

–Hala, ez protestatu hainbeste eta jan. Batzuek ez dute ezer jateko eta zu berriz, porru-patata goxo batzuegatik kexu! Afrikara bidali behar zaitut egunen batean, han ikasiko duzu! –ama mahaian eseri da alabaren ondoan, eta eskolako kontuak kontatzeko esan dio.

Ez daki ordutik zenbat aldiz jango zituen porru-patatak. Baina gauzak asko aldatuta ziren. Orain bera zen amari barazkiak jartzeko eskatzen ziona. Magnesioa, potasioa eta C bitamina izateaz gain, bazekien porruek 20kcal zituztela, makarroiek, berriz, 521, eta bexamelak zein txorixoarekin zenbat izango zuketen kalkulatzera ez zen iritsi, denbora galtze bat. Gorputzak 2.000kcal behar bazituen, nola hartu laurdena baino gehiago plater bakarrarekin? Gauzak asko aldatu dira Mirenen etxean. Amak pozik erosten dizkio dieta produktuak 17 urteko alabari, fin egotea denen onerako dela dio, eta alabak itxura polita du nerabezaroak ohi dituen kurba markatu eta gerrialde estuarekin. Jada ez du noiz-behinka erosten zuen txokolate tableta armairuren batean ezkutatu behar, garai batean ez bezala, nahikoa baitzen bera etxetik joatea alabak txokolate tableta hartu eta pentsatu gabe irens-teko. Ama konturatzen ez zelakoan!

Altzairu denda pasa du, ez da ohartu dena erdi preziora jarrita zutenik ere, eta kiroldegian zer egin behar duen planeatzen hasi da: 20 minutu korrika erritmo bizian, gero 25 kg pisuen lau serie, abdominalak 100 gutxienez... Kiroldegira heldu da eta kronometroari begiratu dio: 7 minutu eta 43 segundo. Aurreko astean baino 20 segundo gehiago. Beste 50 abdominal gehiago egin beharko ditu.

*Pixka bat gehiago... bost minutu. Programa hau bukatu ostean, nahiko. !7:30ak arte, hiru minutu soilik gelditzen baitira... 18:00ak arte ikusiko dut eta bihar berriz bat ere ez...*

Arratsaldeko hiruretatik sofán etzanda zegoen Irati telebistari begira. Lehenengo *Mujeres y hombres y viceversa*, mila aldiz kritikatu zuen programa hura. Ez zuen jasaten nola joan zitezkeen gorputz ederreko gizon-emakume horiek telebistara bikote bila, kanpoan ezin aurkitu zezaketela eta, mundua beraientzat gutxitxo balitz bezala. Ezin zuen jasan zeinen erantzun axolagabeak ematen zizkioten galdera bakoitzari, irribarre eginez eta erruki aurpegi harekin, esandakoa benetan pentsatu dutela konbentzitu nahian. Ez zuen ulertzen nola bizi zezakeen jendeak maki-laje artean ponpoxturiko gezur hura. Baina begira jarraitzen zuen, errealitatean ere gezurrei begira egoten ohitua baitzegoen. Ondoren tele-

nobela hegoamerikar luze horietako batek eman zion segida, hainbesteko grazia egiten zion azen-tuz mintzo ziren aktore baten izena ere gogoan ez zuen arren. Gero futbola edo pelikularen bat edo *realitia*... Ez zen oroitzen zeri begira zegoen, besterik gabe, irudiei begiratzen zien, inongo loturarik ikusi gabe, neurona guztiak galdu bali-tu bezala, ez zuen pentsatzeko gogorik. Gaur ez.

Eta hala, pentsatu gabe botoi gorriari zapaldu zion, arrazoirik bilatu gabe. Begirada berdin mantendu zuen, orain loturarik gabeko irudiak ez zituen kaxa hari so, garuna zuri zuela. Be-giradak, ordea, badu fenomeno kurioso bat: puntu bati erreparatzen diogunean, hura xehe-tasunez behatu nahi dugunean, eta begi kliska-darik ere egiten ez dugunean, hura begi bistatik ez galtzeko, dena lausotzen da, eta inguruko denarekin batera puntua ere bai. Dena da lauso.

Beltza omen da kolore guztiak bere baitan gor-detzen dituen bakarra. Ez omen dio bakarrari ere ihes egiten uzten, ez kolore, ez pertsona. Baina telebistaren pantaila beltzetik irudiek ihes egitea lortzen dute, eta hor dago Irati, sofan, luze etzanda, mugitu gabe, ezerezari begira. Begiak ezin ditu, ordea, denbora luzean irekita mantendu, betazalek likidoa behar omen dute eta eskerrak horri. Iratik behin eta berriz itxi zein ireki ditu begiak, baina pantaila beltzeko neskatila ez zen mugitzen, geldi zegoen ilunta-

sun hartan preso. Eta ezerez hura bera dela ikusi du. Negarrez hasi da.

–Zure eginbeharra ikastea da eta gelako notarik onenak ateratzea, zure aitak eta amak bezalaxe. Nik unibertsitateko fakultateko nota onena atera nuen eta zure ama ere Gipuzkoako nota onenak genituenon sari banaketa batean ezagutu genuen. Badakizu ezta? –eskolako motxilan zegoen liburuetako bat atera dio aitak alabari –Hara, natur zientziak. Ez duzu etxeko lanik egiteko?

–Bi ariketa bakarrik ziren eta atzo egin nituen. –alabak gosaria oraindik bukatzeko du, eta begietan makarrak ageri zaizkio, larunbatez bederatziatan begiek ezin dutela irekiz esanez.

–Eta, ez duzu beste ezer egiteko? Hori bakarrik bidaltzen dizue etxerako lan gisa? –aita harrituta zegoen Iratiren motxilan beste libururik ez zegoela ikusirik –Zuen esku dago etorkizuna eta bi ariketa soilik bidaltzen dizkizue asteburu osorako! Horrela aterako dugu gizartea! Lehen ere horregatik gaude gauden bezala –Aitak alabaren inguru giroko zientzien liburua hartu eta edozein orrialdetan ireki du –Ea, esan eguzkiaren solstizioak zein egunetan izaten diren eta bere ezaugarriak.

Sukaldeko erlojuaren tik-tak hotsa beti entzuten zen nabarmen. Irati aulkian jesarrita zegoen, eta aita bere aurrean, liburua eskuetan zutik, ala-

bari begirada tinkoz erantzunarazi nahi balio bezala. Lau-bost tik-tak nahikoa izan ziren egoera deseroso bihurtzeko.

–Benga Irati, *txorrada* hori erantzuteko ez da egun osoa behar!

–Oraindik ez gara gai horretara heldu. Laugarren gaira arte soilik eman dugu –alabak ahots apala du, baina ez dio aitari begiratzeari utzi.

–Laugarren arte bakarrik? Noski, zuen txanogorritxoren antzerki txepel horiek egiten ibiltzen zarete eta benetan garrantzitsua dena alboratu. Ez dit inporta, goizean ez duzu ezer egiteko ezta? Bederatzigarren gai hau ikasi orduan, eta arratsaldean egingo dizkizut galderak.

Aita sukaldetik atera da, haserre itxuraz eta Iratik *Cola-caosari* eutsi dio eta hala egon da, sukaldeko erloju zaratatsuaren monotoniaz. Gosari hura sekula ez bukatzea desio luke, baina hasperen sakon bat egin eta liburua ireki du, 56. orrialdea: *Eguzkia eta Ilargia, gure lagunak!*

Ikasi ditu eguzkiaren solstizioak, ahaztu ere egin zaizkio eta orain nahikoa buruhauste du matematikako trigonometriarekin. Ez du ezertxo ere ulertzen! Bai, formulak ikasi ditu eta klasean dagoela ustez ulertzen duela iruditzen zaio, baina etxean ez zaizkio ariketak ateratzen. Ez daki formula bakoitza noiz aplikatu behar duen, ez du inoiz sinplifikatzeko aukerarik ikusten, tan-

gentea jada zeren zatiketa den ere ez du garbi... Ezer ez dakiela sentitzen du, eta negarrez hasten da.

Telebistaren isla inoiz baino beltzagoa da eguneroko aipatzen dituen gezurrak alhora utzi eta neskatoaren egoeraren egia irudi duelarik. Bat-bateko inpultsuz, korrika altxa eta ostiko bat eman dio salako armairuari, mahai gaineko liburu guztiak hartu eta lurrera bota ditu pilotariaren errematea bailitzan. Malkoekin batera bihotza aterako zitziolako sentsazio etengabeak ez zion arnasa hartzen ere uzten. Muskuluak gogortuta sentitzen zituen eta izerditzen ari zela nabari zuen. Etxean zehar korrika zebilen, noraezean, mugimenduan zebiltzan paretak eskuekin gelditu ezin zitzaizela konturatuta artega. Komunera joan da eta negarrez segi du. Burura egun osoan egin beharreko gauzen zerrenda etorri zaio; ez du ingeleseko *First*-erako ariketa gehigarriarik egin, ez biologiako laburpena, ez gaztelanian ordura arte emanda zutena birpasatzeko zina bete... Denbora alferrik galdu zuen, eta telebistari begira zegoen neskatila alferraren irudiak, etorkizuneko bata zuridun medikuarena ordezkatzeko zuen orain.

Ez zuen gogoratzen azkenekoz noiz atera zen lagunekin, ez zinera edo kafe bat hartzera joan ote ziren. Ez zekien kuadrillako Anek hiru urtean ibilitako mutilarekin utzi zuenik, eta Joana



lau urte zaharragoa den batekin hasi berria dela. Asteburuetan bere zeregin zein helburu bakarra: ikastea. Goizeko argitu gabeko egunetik, farolek apenas erakusten zuten eguna, ikasten pasatzea. Bere betebeharra izatetik, bere beharra izatera pasa zen ikastea.

Ordu erdi pasa du Iratik komunean giltzapeturik baina bertatik konbentziturik atera da, negarra salatzen zuten begi gorriak ezin ezkutatirik. Ikasmahaiaren aurrean jarri eta motxila ireki du. Gaueko hamarrak jota dira baina ez dio axola, etxekoen oheratzeko esanak ere ez ditu entzuten. Bederatzigarren gaira arte ikasiko du, eguzkia eta ilargia lagunak zituela ahaztuta.

Ohetik nola hala esnatu da gaur ere, zukua eta bi tostada gosalduta eta komunera. Errutinazalea da Irene, eta ez zaio axola goiz esnatzea beharrezko gauzak egiteko. Ilea motots batean bildu du aurpegian inongo trabarik izan ez zezan, eta *Garnierren* hain gustuko duen leuntzailea aplikatu du, limoi estraktuduna, bere ileari berezko distira ematen diona. Ispiluari txundituta begiratzen dio, ile apaindegiko efektu bera lortzen du, zeinen ile polita duen eta hain ikusten da naturala... 20 minutuz eduki behar du leuntzailea eta bitartean tonikoa eman du, mirailari soa kendu gabe, betiere leunki masajeak emanaz borobilak egingez. Ondoren begien ingururako erosi berri

duen krema tokatzen zen. Izan ere, kezkatua zegoen azken aldian zituen begizuloek ematen zioten itxura tristearekin, eta ingurukoek aurpegi txarrarekin begiratzen hasiak zirela nabaritu zuen, beraz, lehenbailehen erosi zuen telebistan ikusia zuen krema mirarigile hura. Ezin ahaztu krema hidratantea, *anti-edad* noski, ez zuen nahi hogeitaz urterako zimur bakarra ere izaterik! Bere azal beltzarana izorratu besterik ez zuten egiten, leuntasun monotonoan erliebeak ez ziren ondo geratzen. Eta azkenik, eguzkitako krema, urte osoan eman beharrekoa. Neguan ere erradiazioek azalean gaitzak sor zitzaizketen eta hargatik ematen zuen egunero, izpi batek eguzki bat nola kaltetu zezakeen ondo ulertu gabe.

Leuntzailea kendu eta begiak margotu ditu, ez askorik, beti natural egotea gustatzen baitzaio. Ilea lisatu du eta aurreko egunetik pentsatuak zituen praka zein kamiseta jantzi. Ispiluan beste begiratu bat; aurretik ondo, atzetik ere bai, ipurdia estu eta tinko. Termometroak 5°C markatzen zituen, uste baino hotz gehiago egiten zuen dirudenez, baina ez zeukan astirik berriz beste konjuntio bat pentsatzen hasteko. Perfektu zegoen.

Eskolara abiatu da, pisuzko motxilak enborra zuzen mantentzea galarazten diola. Pauso bakoitza erregelarekin neurtua du eta milimetroan neurtutako eguneroko irribarre berdinarekin agurtu ditu lagunak zein klasekideak.

Klasera sartu aurretik komunera joan da, ez dauka txizagurarik, baina eskuak garbitzen ditu, ispiluan begiratzeko aitzakian, ile, ezpain zein begiei azken begiratua, dena bere lekuan duela konprobatu nahi du.

–Baina nola etorri zara txandalarekin? Ez duzu gure familiakoa ematen! Nik txandala, eskolan gimnasia dugunetan justu-justu, eta gero aldatzeko eramaten dut –Irenek lehengusina zahararren ohiko erretolika entzun beharra izaten du familia bazkari bakoitzean. 10 urte bete berriak ditu, ilea motx-motx moztuta, mutil estiloan, *Ternuako* praka batzuk, oso politikak eta erosoak bere ustez, eta ia egunero janzten ditu belaunaldian zulotxo bat egin zaien arren. Gustura bizi da eta aspertu egiten da lehengusina zaharren arteko berriketaldia entzutean, ezer ez du ulertzen –Lehengoan *Bershkan* izan nintzen eta txarrolezko txamarra bat erosi nuen, zoragarria, merkea gainera.

–Gorri bat? Niri ere gustatu zitzaidanaz ari zarela uste dut, baina azkenean ez nuen erosi –mahai inguruko gainerako lehengusinei ere gaia interesatzen zaiela dirudi, edo bestela oso ondo disimulatzen dute –Ikusi duzue *Victoria Beckham*-ek egin duen *look* berria? Agian hurrengo astean nik ere hala moztuko dut ilea... oso *fashiona* da, ezta?

–Bai, baina nik ile luzea nahiago –hirugarren lehengusina ere odol berekoa zen. –Udaberriko berriro ere praka zabalak omen datoz, ikusi dituzue Milango desfileko argazkiak?

Bazkari guztia horrela pasatzen zuten familia-ko printzesek. Arropaz ez bazen produktu kosmetikoez edo beraiek asmatutako hizkuntzako *cool*-eko hitz berriez. Ireneri laket zitzaizkion gaietara hurreratzen zirenean, futbola kasu, belarria pixka bat zorroztu ohi zuen, esperantzaz, baina alferrik futbolariak zein goapoak eta galaiak ziren esaten bakarrik baitzekiten. Behin edo behin esperimentu gisa hartzen zuten neskatoa:

–Begira, *flekiloa* zuzen moztuko bazenu, zure kopeta handi hori pixka bat disimulatu eta gainera aurpegiak forma polita hartuko lizuke –lehengusinetako batek ilearekin probak egiten zizkion, berari inongo baimenik eskatu gabe–. Egun batean nirekin etorri behar duzu erosketak egitera, ikusiko duzu, neska polita bihurtuko zaitut.

Ondo gogoan du, nahiz eta zazpi urte pasa diren ordutik. Lehengusinak egin zion irribarreaz oroitzen da, irribarre perfektu hartaz, zoriontasun hura izateko bidea berak erakutsiko ziola esanez. Orain, Donostian dendaz denda ibiltzeko planak usu egiten dituzte elkarrekin eta ez dira bueltatzen eskuak poltsen pisuagatik nekatu

arte. Ireneri ez zaio gustatzen lehengusinak ume-tako *piura* haietaz adarra jotzea, lotsatu egiten da argazkietan ikusten duen neska zarpail hartaz, ezezaguna egiten zaion irribarre bat duen hartaz.

Eskolan nahiko ondo moldatu izan da beti. Klasean aurrealdean esertzen da, hankak gurutzatuta dituela, eskuinekoa ezkerrekoaren gainean, beti berdin, eta bizkarra zuzen mantentzen du tripa barrura sartuta mantentzen duelarik. Arnasa hartzea kosta egiten zaio, baina hala ere irribarre egiten du, ispilu aurrean entseatuta duen irribarre bera, masailetan zimurrik ateratzen ez zaiola.

Arratsaldean ez du ezer egiteko, eta etxerako lanak ere ez dizkiote bidali Ireneri, horregatik Mariarekin argazkiak ateratzeko gelditu da, denbora pasa. Herriko parke batera joan dira eta han pasa dute arratsa, *klik* eta *klik*; triste itxurak eginez atera dituzte batzuk, txakurrak gose direnean hezurra eskatzeko jartzen duten aurpegi errukior berarekin bestea; atera dituzte argazkiak gora begira, argazkia ateratzen ari zitzaiola konturako ez balitz bezala, interesanteago bihurtzen da modeloa; lurrean etzanda ere bai, kamiseta “kasualitatez” igoko bailitzaien. Ateratako argazki guztiak birpasatu dituzte Irenek eta Mariak, eta batzuk ezabatu egin dituzte, polit ateratzen zirenekin soilik geratu dira, eta hala ere

*Tuenti*-ra igo aurretik photoshopen argi efektuak ezinbestean emateko eskatu dio Irenek Mariari. Harro begiratzeko dio argazkietako erdi emakume hari, emakume polit eta dotore hari, irribarre perfektua geroz eta hobeto egiten zuen hari.

Etxean telebistaren bolumena igota afaldu dute gaurkoan ere, normaltasunez entzuten dituzte Palestinako milaka zenduen datuak, eta jada, gurasoen ahotsa baino ezagunagoa egiten zaio *Gaur eguneko* aurkezlearena. Egunero egiten zituen agurra eta notiziak aurkezteko formulak buruz zekizkiten mahaiko hirurek, baina beraien eguna ere atzokoaren berdina zen, eta biharkoaren antzekoa, zertan, hortaz, gastatu indarrak?

Gurasoak sofan eseri eta telebista ipini dute. Irenek ohiko berriketaldia izan du gustuko dituen hiru mutilekin, baina mutilekiko interesa ere geroz eta gutxiago du. Komunera joan da, atea itxi eta ispiluari begiratu dio; aurpegiaren eskuinaldea leun, goxo, bigun. Ezkerraldea are hobeto, bai, ezkerraldea politagoa dela deritzo. Eta horrela pasa du ordu erdia, bere bisaia ederrari begira, Edurnezuriren ispilu magikoa izango balu bezala, munduko ederrena bera zela esaten zion ispiluak. Gaueko hamarrak dira eta makillajea kentzeko garaia heldu zaio. Crema baten laguntzaz, kotoiak hainbat kolore atzeman ditu, eta ispilu magikoari begiratu dio berriz. Ez zekien nor zer pareko neskatila hura, hain zuria,

begi txiki eta itsusiduna, eta gauerako *maskarilla* emanda, ahalik eta azkarren egin du ihes, gurasoei ere begiratu gabe. Lo hartu aurretik hurrengo egunean zer jantzi pentsatu du, ispiluko azken isla gogoan zuela. Lehengusinak aipatzen zion neska zarpail haren irudia iruditu zaio. Eskerrak ez duen inork ikusi.

06:18. Hiru etxeetako iratzargailuak segundo berdinetan jo dute, milesimen alde sakelako tonu bakoitzak konpentsatzen duelarik.

06:18. Mirenek ohiko gosaria egin du. Zuku azukrerik gabea, eta esne gaingabetua. Noizbehinka irin osoko galleta pare bat jan izan ditu, baina atzo afarian hiru ogi pusketa jan zituenez gaur ezin zuen karbohidrato gehigarririk hartu. Gosaldu eta abdominalak egiten hasi da Olenzterok ekarri berri dion *Ventre plano* liburuari erreparatuz.

06:18. Irene kontu handiz altxa da ohetik, zimurren aurkako maskarilla duela kontuan izanik. Komunera joan da eta eguneroko erritual bera egiten hasi da; leuntzailea, tonikoa, begietakoa, hidratatzailea, eguzkitako krema...

06:18. Iratiri geroz eta gutxiago kostatzen zaio esnatzea. Begi zuloak jipoitu balute bezalakoak ari zaizkio bihurtzen, baina bere itxura horrelakoa dela sinesten hasi da. Ikasmahai aurrean jarri eta aurreko gauekoa birpatsatzeari ekin dio.

Aurreko esfortzu guztiak zerbaiterako balio dezan.

Eta hala jarri dira hirurak, 06:18an, ez 06:14an edo 06:21ean, gelako ispiluari begira, inperfekzioak soilik erakusten dizkien ispiluari begira. Egun oso bat dute aurretik perfekziora heltzeko.